



2024ko LEKUNBERRIKO ANTZINAKO AZOKAN PARTE HARTZEKO ARAUDIA

1. Azoka **2024ko abuztuaren 4an** izango da, Antzinako Azokaren egunean, ordutegi honekin: irekiera 10:30ean eta amaiera 20:00ak aldera (14:30etik 17:00etara, gutxi gorabehera, bazkaltzeko itxiko da). Antolatzeko ordutegia 09:00etatik 10:30era izango da. Azoka amaitu eta mahaia 20:30ean jasoko dira gehienez.
2. Azoka Lekunberriko **Herriko Enparantzan** jarriko da.
3. **AZOKAN PARTE HARTZEKO, LEKUNBERRI EDO LARRAUNGO BIZILAGUNA IZAN BEHARKO DA, EDO BAILARAREKIN HARREMANA IZAN.**
4. Epea maiatzaren 31an hasi eta ekainaren 14an amaituko da. Azokan parte hartzeko, nahitaez bete beharko da iragarki honekin batera doan formularioa, eta bertan dauden galdera guztiak bete beharko dira. Formularioa **Lekunberriko Udaletxean eman daiteke edo posta elektroniko honetara bidali: kultura@lekunberri.eus**. Jarduera behar bezala antolatzeko, epe hori igarota, ez da onartuko azokan parte hartzeko proposamenik. Parte-hartzearen berrespena Kultura Sailak aurkezteko azken egunaren ondoren jakinaraziko du.
5. Artisau bakoitzak bere mahaia eta postua **behar bezala jartzeko materiala ekarri** beharko du. Beharrezkoa baldin bada, Udalaren mahai eta aulkiak eska ditzake azoka parte hartzeko eskaerarekin batera. Argia hartzeko aukera ere izango da, baldin eta postuaren jarduera garatzeko guztiz ezinbestekoa dela baloratzen bada. Honekin batera, salduko den materiala **artisau/egileak berak egina** izan beharko da, eta ez bigarren eskukoa, behar bezala justifikatua ez bada.
6. Formularioak berrikusi ondoren, ausazko **zenbaki** bat esleituko da postua emateko. Talde eragileak baloratuko du ezaugarri desberdinak dituen posturen batek leku jakin bat behar duen. Behin kopurua banatuta, **espazioak errespetatu** beharko dira, postuen jabeen artean bestelakoa erabaki ezean.
7. Antzinako Azokak duen izaerarengatik, **postu guztiek ANBIENTAZIOA edukitzea guztiz DERRIGORREZKOA** izango da: postuetako mahaia oihal edo zakuz estaliak eta dekoratuak egotea; saltzailea baserritarrez ala Erdi Aroko arropez jantzia egotea; eta karparik ekarri ezean, hau ez dadila plastikozkoa izan (ala plastikoa oihal edota dekorazioekin estalia egon dadila). Egunean bertan baldintza hauek betetzen ez badira, antolakuntzak postua desmuntarazi eta Azokatik kanporatzeko eskubidea izan dezake.
8. Azokak irauten duen bitartean sortzen diren akats guztiak azokaren arduradunek konpondu beharko dituzte. Azoka amaitu ondoren, parte-hartzaile bakoitzak **bere lekua garbituko** du.
9. Antolakuntzak beretzat gordetzen du azokan edozein aldaketa egiteko **eskubidea**, baita eguraldi txarraren ondorioz azoka lekuz aldatzekoa ere.





XXVIII

ANTZINAKO AZOKA
MERCADO DE ANTAÑO

Abuztuak 4 de Agosto · 2024
Lekunberri

NORMATIVA DE PARTICIPACIÓN EN EL MERCADO DE ANTAÑO DE LEKUNBERRI 2024

1. La feria tendrá lugar el **domingo 4 de agosto de 2024**, con el siguiente horario: la apertura de la feria comenzará a las 10:30h y el cierre será a las 20:00h (se cerrará aproximadamente entre las 14:30 y 17:00 para la comida). Se establece un horario de montaje entre las 09:00h y 10:30h. La finalización de la feria y la recogida de las mesas será como máximo a las 20:30h.
2. La feria se instalará en la **Herriko Enparantza** de Lekunberri.
3. **PARA PARTICIPAR EN LA FERIA SERÁ NECESARIO SER VECINDARIO DE LEKUNBERRI O LARRAUN, O TENER ALGUNA RELACIÓN CON EL VALLE.**
4. El plazo comienza el **31 de mayo** y finalizará el **14 de junio**. Para formar parte de la feria será obligatorio completar el formulario adjunto al anuncio, y rellenar todas las preguntas del mismo. El formulario **podrá entregarse en el Ayuntamiento de Lekunberri o enviado a la siguiente dirección de email: kultura@lekunberri.eus**. Para la correcta organización de la actividad, pasado este plazo, no se admitirán propuestas para formar parte de la feria. La confirmación de participación se notificará desde el Área de Cultura después de la fecha límite de presentación.
5. Cada feriante deberá traer su mesa y todo el **material necesario para colocar su puesto**. Podrán solicitarse sillas y mesas de propiedad municipal en la solicitud de participación en el Mercado. Podrá disponerse también de toma de luz si se valora necesariamente imprescindible para desarrollar la actividad del puesto. Igualmente, el material puesto a la venta deberá haber sido **creado/producido** por el/la feriante, y no ser de segunda mano o reventa, a no ser que sea debidamente justificado.
6. Tras la revisión de los formularios se asignará un **número** aleatorio para asignar el puesto. El Área de Cultura valorará si alguno de los puestos con distintas características necesita un espacio en concreto. Una vez repartido el número **se deberán respetar los espacios**, salvo que entre puestos se acuerde lo contrario.
7. Dadas las características propias del Mercado de Antaño, **todos los puestos OBLIGATORIAMENTE deberán estar AMBIENTADOS y decorados**: las mesas deberán estar tapadas o decoradas con telas o sacos, el/la feriante deberá llevar atuendo tradicional o de estilo medieval y, en caso de traer carpa o jaima, esta deberá ser de tela o similar (en caso de ser de plástico, deberá taparse con telas o decoraciones). En caso de no cumplirse este requisito, la organización tendrá derecho a obligar a desmontar el puesto y que este abandone el Mercado.
8. Todo desperfecto que se ocasione durante el desarrollo de la feria deberá ser reparado por las personas responsables de los mismos. Tras finalizar la feria, cada participante procederá a la **limpieza del lugar ocupado**.
9. La organización se reserva el **derecho** de cualquier modificación de la feria, así como trasladar la misma por inclemencias del tiempo.

